

**Basque Culinary Centerrekin lankidetzan****'FAMILIA CHEF', EROSKI-REN EKIMEN BERRIA  
SUKALDARITZA FAMILIAN IKASTEKO**

- Sukaldaritza ikastaro digital bat da, teoria eta praktika batzen dituen familiar modu orekatuan elikatzen ikasteko
- EROSKIren konpromisoetako bat da kontsumitzaileen ongizatea hobetzea formazioarekin eta informazioarekin, eta konpromiso horren barrenean sartzen da ekimen hau

Elorrio, 2020ko urriaren 30a.- [EROSKI](#)k martxan jarri du "Familia Chef", familientzako ikaskuntza proiektu bat, elikadura orekatua sustatzeko.

Kontsumo kooperatiba den aldetik, EROSKI beti nabarmendu da kontsumitzailea formatzeko eta informatzeko izan duen jardueragatik, eta orain ere kontsumitzaileen eskura jarri ditu jateko ohitura osasungarriak lantzeko tresnak. "Familia Chef" du izena, eta sukaldaritza lehiaketa digital bat da, doakoa, EROSKI Clubeko bazkideek parte har dezaketena webgunearen bitartez. Modulu bat baino gehiago ditu, alde teorikoa, ariketa praktikoak, errezetak... Eta modulu horietan, gastronomiaren historiatik abiatuta lantzen dira oinarrizko zenbait kontzeptu, hala nola prozesuak, tresneria, teknikak, platereratzea... Ondoren, praktika jarri behar dira askotariko bideoerrezeten bidez.

*"Pandemia honek eta, batez ere, etxean pasatu dugun denborak, zenbait portaera digital sendotu ditu, eta ohitura berriak sarrarazi. Nahiz eta horietako batzuk unean unekoak izan, beste batzuk gelditzeko sartu dira", azaldu du Ainhoa Oyarbidek, EROSKIren Komunikazio eta Marka arloko zuzendariak, Familia Chef programaren zentzua argituz. "Kanal digitala hautatuko dute familia gehienek hemendik aurrera bai informazioa kontsumitzeko, bai formazioa jasotzeko, entretenitzeko eta esperientziak izateko", aitortu du Oyarbidek.*

Ikaskuntza proiektu hau diseinatzeko, [Basque Culinary Center](#)ren laguntza izan du EROSKI. Proposamen errazekin osatuta dago, eta mailak gainditu ahala zailtasuna ere handitu egiten da. Ikastaroa osatzen dutenek amaierako lehiaketan parte hartu ahalko dute, eta partaideek ikasi dutena erakusteko aukera izango dute. Horretarako, errezeta berri bat idatzi beharko dute beren familia aintzat hartuta. Ondoren, bideo batean grabatuko dute errezeta, eta hartan, plateraren jatorria azaldu beharko dute, eta, horrekin batera, zein pauso eman dituzten, zein produktu erabili dituzten eta zein tresna. Azkenik, webgunera igoko dute bideoa. Basque

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Culinary Centerreko eta EROSKIko kideez osatutako epaimahaiko batek irabazleak nor diren ebatzi beharko dute, balorazio irizpide jakin batzuk kontuan izanda; besteak beste, errezetaren berrikuntza maila, kalitatea, oreka, erabilitako teknikak, tokiko eta sasoiko produktuen erabilera, hurrek platerean nolako zeregina izan duten, aurkezpena eta talde lana.

EROSKIk [Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan hartuak dituen konpromisoen](#) barrenean sartzen da ekimen hau, erreferentzia egiten baitio elikadura orekatuari, haur gizentasunaren prebentzioari eta bizimodu osasungarriari.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)